



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA
INGURUMENA

Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzako udalerrietan 5. edukiontzia ezartzeko aurre proiektua, eta Elgetako sistemaren egokitzapena alboko kargara



Data: 2015-11-03

| | |
|---|-----------|
| 0 – Proiektuaren helburua eta aurrekariak..... | 2 |
| 1 – Hondakin bilketa eredu berriaren proposamena | 3 |
| 2 – Bilketa zerbitzuak eta zerbitzu gehigarriak | 7 |
| 3 – Baliabide materialak eta pertsonalak | 9 |
| 4 – Sistema berria ezartzeko behar diren epeak..... | 15 |
| 5 – Aurrekontuak..... | 17 |
| 5.A BILKETA ETA ZERBITZU GEHIGARRIEN KOSTEAK | 17 |
| 5.B INBERTSIO BEHARRAK ETA SALMENTATIK LORTUTAKO INGRESOAK | 19 |

0 – Proiektuaren helburua eta aurrekariak

Dokumentu honen helburua da, hiru udalerrri hauetan egungo sistema aldatzeak suposatuko lukeen inbertsio, gastu eta ezarpen epeak aurreikustearena, eta bertan azaltzen den aurreproiektua, Mankomunitate mailan aurrera ateratzea nahi den helburu nagusi baten abiapuntu bilakatzen da, hau da, era selektiboan ahalik eta hondakin gehien biltzea koste baxuenarekin.

Bilketa sistemaren lehenengo modifikazioa eman zenetik, Aretxabaletako borondatezko 5. edukiontzia inplantazioa (2009. urtean), azkenengora arte Arrasateko 5. edukiontzia (2015. urtean), bilketa selektiboaren hazkuntza nabarmena izan da (%34 ingurutik %80ra).

Era berean, bilketa zerbitzuetan lan egiten duen langile kopurua ere nabarmen hasi da; 15 langiletik (2011ko urtarrilan), gaur eguneko 54ra.

Orain, ezarritako sistemen berrantolaketa planteatzen da proiektu honetan honako helburu nagusiekin:

1. Erosotasuna ematea herritarrei beraiek sortutako hondakinak kudeatzeko garaian.
2. Murriztea bilketa gastuak.
3. Mantentzea gaur egun lortutako bilketa selektiboaren tasa.

Guzti honegatik, eta aipatutako helburu hauek betetzeko, planteatzen da Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzako bilketa sistema aldatzea.

Honekin batera, eta kontuan hartuta, Elgetako edukiontzia (traserako edukiontzia) dituzten arazoak sarrera kontroleko elementuekin, Elgetako sistema egokituko da alboko kargako edukiontzietara, edukiontzi hauetan muntatuta doazen sarrera kontrol sistemak, arazo gutxiago ematen baitute.



Gainera, bilketa zerbitzuak emateko garaian, Bergara eta Elgetako herriak lotuta daude, inertziak hobeto aprobetxatzeko. Horregatik, Bergarako herrian emango litzatekeen edozein aldaketak Elgetari ere eragingo lioke.

Hala ere, Elgetarako proposatzen den edukiontzi aldaketak ez du eraginik herri honen bilketa zerbitzua emateko eran.

1 – Hondakin bilketa eredu berriaren proposamena

Bilketa sistema berri bat proposatzen den momentuan, honako irizpideak aplikatzen dira, bilketa sistema eraginkorra lortzeko, hau da gastu gutxienarekin era selektiboan jasotako hondakin maximoa lor dezakeena:

- ✓ Herriaren azalera eta populazioaren dispersioa. Elementu honek markatzen du ibilbideen diseinua.
Era berean, elementu honek baldintzatu dezake fluxu ezberdinen nahasketa egin beharra ruta bakar batean, honela kilometro askotako bi ruta ezberdin atera behar ez izateko.
- ✓ Hondakin fluxu ezberdinak nahasteko aukera. Esparru berean jatorri ezberdineko hondakinak batera jasotzeak diru murrizketa suposatuko luke. Hala ere bilketa elementuak ere ahalbideratu behar dute fluxuak nahastea.
Adibidez, bostgarren edukiontziaren leiho txikiak ez du uzten sortzaile handiak sortutako hondakinak bertan sartzea modu erosoan (poltsa handietan).
- ✓ Bilketa elementu ezberdinen konpatibilitatea. Bilketa elementu ezberdinen konpatibilitateak ahalbideratzen du jatorri ezberdineko hondakinak ruta berean jasotzea, baita ruta ezberdinak ibilgailu berdinarekin egitea, edota hondakin bera modu ezberdinetan jasotzea.
Adibidez, atzeko kargako ibilgailuek posible dute hondakinak jasotzea edukiontzitik (komertziala eta landalurra) edota zuzenean beraien toberara botata (poltsen bitartez eginiko bilketa).
- ✓ Bilketa sistemak behar dituen langile kopurua. Alboko kargako bilketa sistemak, ibilgailutik jaisten ez den langile bakar baten beharra du soilik hondakinak jaso ahal izateko. Aldiz, atzeko kargako bilketa sistemak pertsonal gehiago eskatzen du, edukiontziak kamioiaren atzeko partera mugitu behar baitira.
Honetaz aparte, hondakinen jasotze operazioak azkarragoak dira alboko bilketadun ibilgailuekin.
Hala ere kontuan izan behar da, alboko sistema batek duen efizientzia altua galdu egin daitekeela, edukiontziak kokatzen diren lekuetara bilketa ibilgailuak akzesorik izango ez balu (ibilgailu txikiarekin atera beharko litzateke edukiontzi hori), edota erabiltzaileek ez badituzte beraien hondakinak edukiontzi barrura sartzen (aurretik beste zerbitzu bat pasatu beharko litzateke hondakinak edukiontzi barrura sartuaz).
- ✓ Erabiltzaileari sistemak ematen dion erosotasuna. Hondakinak botatzeko garaian egutegi eta ordutegirik ez egoteak, erabiltzaileari erosotasuna ematen dio.



- ✓ Hondakin bilketatik lortzea espero den bereizketa maila. Orokorrean, sistema pertsonalizatuak bereizketa tasa altuagoak ematen dituzte, kalitate hobegoarekin.

Aurreko lerroetan aipatutako irizpideak kontuan hartuta, dokumentu hau prestatu da non proposatzen den bilketa eredu, Arrasaten ezarritakoaren parekoa da honako berezitasunekin:

1. Herritarrek sorturiko hondakinen frakzioak 5. edukiontzia-aren bitartez jasotzen dira.
2. Komertzio eta industriak sorturiko frakzioak, atez ate jasotzen dira.

Hala ere, proposaturiko sistemak izango ditu ere Arrasateko sistemarekiko ezberdintasunak, landa lurrian herritarrei ematen zaien zerbitzuak mantentzea proposatzen baita.

Hiru herri hauen kasuan, bilketa eredu berrira aldatzeak honakoa suposatuko luke:

| ARETXABALETA | | Organikoa | Errefusa | Ontzi Arinak | Papera |
|-------------------------|--------------------|--|-----------------|----------------------------------|---------------|
| Herritarra | Gaur | Atez-ate (AA) | AA | AA | AA |
| Hirigunean | Proposamena | Edukiontzi Lateralak sarrera kontrolarekin (ELSK) | ELSK | Edukiontzi lateralak (EL) | EL |
| Herritarra landalurrean | Gaur | Ekarpen Guneak eta Miniguneak sarrera kontrolarekin | EG-MG | EG-MG | EG-MG |
| | Prop. | EG-MG | EG-MG | EG-MG | EG-MG |
| Komertzioa | Gaur | AA | AA | AA | AA |
| | Prop. | Atez-ate sortzaile handiak eta txikiak edukiontzi lateraletan (AA-EL) | AA-EL | EL | EL |
| Industria | Gaur | AA | AA | AA | AA |
| | Prop. | AA | AA | AA | AA |
| BERGARA | | Organikoa | Errefusa | Ontzi Arinak | Papera |
| Herritarra | Gaur | AA | AA | EL | EL |
| Hirigunean | Prop. | ELSK | ELSK | EL | EL |
| Herritarra landalurrean | Gaur | EG-MG | EG-MG | EG-MG | EG-MG |
| | Prop. | EG-MG | EG-MG | EG-MG | EG-MG |
| Komertzioa | Gaur | AA | AA | AA | EL |
| | Prop. | AA-EL | AA-EL | EL | EL |
| Industria | Gaur | AA | AA | AA | AA |
| | Prop. | AA | AA | AA | AA |
| ESKORIATZA | | Organikoa | Errefusa | Ontzi Arinak | Papera |
| Herritarra | Gaur | AA | AA | AA | AA |
| Hirigunean | Prop. | ELSK | ELSK | EL | EL |
| Herritarra landalurrean | Gaur | EG-MG | EG-MG | EG-MG | EG-MG |
| | Prop. | EG-MG | EG-MG | EG-MG | EG-MG |



| ESKORIATZA | | Organikoa | Errefusa | Ontzi Arinak | Papera |
|------------|-------|-----------|----------|--------------|--------|
| Komertzioa | Gaur | AA | AA | AA | AA |
| | Prop. | AA-EL | AA-EL | EL | EL |
| Industria | Gaur | AA | AA | AA | AA |
| | Prop. | AA | AA | AA | AA |

1. Taula: Egungo eta proposaturiko bilketa zerbitzuak herri eta frakzioka

Gorri zerbitzuetako gelaxkaketa agertzen diren zerbitzuak, dokumentu honen proposamenaren arabera desagertu egingo lirateke.

Beira herri guztietan berdin jasotzen da, goiko kargako (Igloo) edukiontzien bitartez, eta hondakin honekiko ez da aurreikusten inongo aldaketarik.

Kartoi komertziala eta industrialaren zerbitzuak ez luke jasoko aldaketarik: Aretxabaleta eta Eskoriatzan, astearte, ostegun eta larunbatean, eta Bergaran, astelehen, asteazken eta ostiralean jasoko lirateke kartoiak, eta betiere atez-ate.

Bestalde, herritarren aldetik hondakinak ateratzeko frekuentzia eta kontrataren aldetik eman beharreko bilketa frekuentziari dagokionez honako aldaketak planteatzen dira (negritaz):

- Frakzio guztietarako atez-ateko sistema duten herrietan (Aretxabaleta eta Eskoriatzan):
 1. Hiriguneko herritarrek organikoa astean hirutan atera dezakete esekitokira eta ateratzen den egunetan jasotzen da.
Proposaturiko sisteman hondakin organikoak edozein egunetan atera daitezke edukiontzira (txartela erabiliz). Edukiontzi bakoitza astean hiru aldiz jasoko da.
 2. Hirigunetan bizi diren herritarrek errefusa astean behin atera dezakete eta pardelak eta antzekoak egunero atera daitezke. Azken hauek jasotzeko egunero irteten da zerbitzu bat "pardelen aurrebilketa" izen pean. Ostegunetan pardelak aparte, gainontzeko errefusa ere jasotzen da.
Proposaturiko sisteman edozein egunetan atera daiteke edukiontzietara edozein motatako errefusa (txartela erabiliz). Astean edukiontzi hauen hiru jasoketa egitea proposatzen da.
 3. Hiriguneko etxebizitzetan sorturiko ontzi arinak astean birritan atera daitezke esekitokira.
Proposaturiko sisteman edozein egunetan atera daiteke edukiontzietara ontzi arinak. Edukiontzi hauen bilketa frekuentziak betetze mailaren arabera egingo dira, egokiak diren ibilbideak eratuz.
 4. Hiriguneko etxebizitzetan sortutako papera astean behin atera daiteke esekitokira etxebizitza modura edo era komunitarioan (atariko).
Proposaturiko sisteman edozein egunetan atera daiteke edukiontzietara etxebizitzetan sortutako papera eta kartoiak. Edukiontzi hauen bilketa frekuentziak betetze mailaren arabera egingo dira, egokiak diren ibilbideak eratuz.



5. Landalurrean, herritarrek posible dute hondakinak eramatea ekarpen gunera edo minigunera aurretik aipatutako edozein frakzio, eta edonoiz. Puntu hauetatik hondakinak jasotzeko kontratak egutegi bat du asteleheneetik ostiralera.
Sistema berria ez da aurreikusten aldaketarik honen funtzionamenduan.
 6. Bilketa komertzialean egutegi bat dago frakzio bakoitza jasotzeko.
Honela, organikoa ateratzeko erabiltzaileak bi egun ditu (astearte eta osteguna) sortzaile txikia izanez gero, eta egun bat gehiago (larunbata), sortzaile handia bada.
Gainontzeko frakzioak astean behin jasotzen dira, eta erabiltzailea egun hauetara moldatu behar da (papera astelehenean, ontzi arinak asteazkenean eta errefusa ostiralean ateratzeko).
Sistema berria planteatzen den aldaketaren ondorioz sortzaile handiak txikiengandik bereiztuko lirateke, hauek sortutako hondakinak modu ezberdinetan jasoz:
 - o Sortzaile txikiak herritarrek erabiliko dituzten edukiontzia erabiliko litzukete.
 - o Sortzaile handiak gaur egungo egutegiarekin jarraituko lukete.
 - o Aparteko kasuak puntualki aztertuko lirateke.
 7. **Industria bilketen kasuan ez da aurreikusten inongo aldaketarik.**
- Organikoa eta Errefusarentzat atez-ateko sistema duen herrian, hau da Bergaran:
 1. Hondakin organikoa eta errefusaren bilketa Bergaran, Aretxabaleta eta Eskoriatzan egiten den modukoa da.
Beraz, goian aipaturiko Aretxabaleta eta Eskoriatzarako planteatzen den sistema bera planteatzen da Bergarako.
 2. **Etxeetan sortutako ontzi arin eta paperaren bilketen kasuan ez litzateke egongo inongo aldaketarik.**
 3. **Landalurrean ematen diren zerbitzuetan ez litzateke egingo aldaketarik.**
 4. Bilketa komertzialen kasuan, organika, ontzi arinak eta errefusa jasotzeko egutegiak daude eratuta. Paper komertziala jasotzeko ez dago zerbitzurik, eta jatorri hau duen papera edukiontzietara bideratzen da.
Aretxabaleta eta Eskoriatzarako diseinatu den sistema bera ezarriko litzateke Bergaran, non atez-ateko zerbitzuak sortzaile handien kasuan mantenduko lirateke soilik.
 5. **Industria bilketen kasuan ez da aurreikusten inongo aldaketarik.**
 - Elgetan: **Herri honetan planteatzen den aldaketa bakarrak (edukiontzi mota aldatzea atzeko kargatik alboko kargara) ez du izango eraginik herritarren funtzionamenduan.**
 - Arrasate: **Herritarrentzat errefusaren lau bilketatik hirura pasatzea planteatzen da.**



2 – Bilketa zerbitzuak eta zerbitzu gehigarriak

Sistema berrian ezartzeko aurreikusten diren zerbitzu berriak modu eragingarriago batean eman ahal izateko herrien arteko inertzia aprobetxatuko dira.

Azpiko taulan azaltzen dira herri ezberdinetan emango diren zerbitzuak eta beraien arteko loturak:

| Zerbitzua | Mota | Jardunaldia | Herriak |
|---|-------------|-------------|--|
| Hondakinen bilketa 4 frakzioak edukiontzietan | Bilketa | Egunez | Aretxabaleta eta Eskoriatza |
| Edukiontzi lateralaren garbiketa | Gehigarriak | Egunez | Aretxabaleta eta Eskoriatza |
| Bilketa puntuen garbiketak | Gehigarriak | Egunez | Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta eta Eskoriatza |
| Edukiontzietan jasotakoaren kalitate kontrola | Gehigarriak | Egunez | Aretxabaleta eta Eskoriatza |
| Hondakinen bilketa organika eta errefusa | Bilketak | Gauez | Bergara eta Elgeta |
| Edukiontzi lateralaren garbiketa | Gehigarriak | Gauez | Bergara eta Elgeta |
| Lateralei asistentzia | Gehigarriak | Gauez | Bergara eta Arrasate (gaur egungo arekiko lan karga gehitu egingo litzateke baina zerbitzuak badu margena) |
| Edukiontzietan jasotakoaren kalitate kontrola | Gehigarriak | Egunez | Bergara eta Elgeta |

2. Taula: Zerbitzu berriak ezartzean herrien artean sortutako loturak.

Elgetako kasuan soilik aldatuko litzateke frakzio organiko eta errefusarako erabiliko den edukiontzi mota (traseratik lateralera). Zerbitzuak emateko era ez luke jasoko aldaketarik.

Bilketa kontratuari begira, planteatutako aldaketak CESPAn enpresarekin sinatutako kontratuari margen handiagoa uzten dio.

Gaur egun, CESPArekin daukagun bilketa kontratua hau da urtean zehar sortzen den gastua bilketa enpresak prestatutako zerbitzuengatik (herriz herri):

| Suma de Kosteak | Nork | | |
|-----------------|------------|------------------------|---------------|
| Herria | CESPA | MANK. (Cesparen lanak) | Total general |
| Antzuola | 106627.01 | | 106627.01 |
| Aretxabaleta | 372568.01 | | 372568.01 |
| Arrasate | 720423.75 | 91443.65 | 811867.40 |
| Bergara | 743980.21 | | 743980.21 |
| Elgeta | 52203.75 | | 52203.75 |
| Eskoriatza | 245432.03 | | 245432.03 |
| Gatzaga | 14538.24 | | 14538.24 |
| Oñati | 703804.68 | | 703804.68 |
| Total general | 2959577.68 | 91443.65 | 3051021.33 |

3. Taula: Bilketa kosteak herrika gaur.



- 1- Kontuan izan behar da Oñatiko kostea, behin betiko prezioekin kalkulaturik dagoela (79.724,59 €-ko diferentzia behin behineko prezioekin).
- 2- Mankomunitateak zuzenean egiten ari dela CESPak egin beharko lituzkeen zerbitzuak Arrasateko bilketa komertzialean, 9. modifikazioan ez zirelako kontuan izan eta kontratuaren gehienezko prezioetik ez pasatzeko (3.198.293,28 €-koa). Kontratu honen gastua, zerbitzuez aparte, CESPari alokatzen zaien ibilgailuen kostea gehituta ere muga honen azpitik egon beharko litzateke.
- 3- Bilketa industrialak Mankomunitateak egiten du zuzenean.
- 4- Diru kopuru hauek ez dute kontuan hartzen BEZa.

Proposatutako aldaketak aurrera eramanez, zerbitzuak emateagatik sortuko litzatekeen kostea honakoa litzateke:

| Suma de Kosteak | Nork | | |
|----------------------|-------------------|------------------------|-------------------|
| Herria | CESPA | MANK. (Cesparen lanak) | Total general |
| Antzuola | 106625.77 | | 106625.77 |
| Aretxabaleta | 273248.85 | | 273248.85 |
| Arrasate | 698991.65 | 91443.65 | 790435.30 |
| Bergara | 566095.74 | | 566095.74 |
| Elgeta | 51093.57 | | 51093.57 |
| Eskoriatza | 162476.00 | | 162476.00 |
| Gatzaga | 14538.24 | | 14538.24 |
| Oñati | 703804.68 | | 703804.68 |
| Total general | 2576874.49 | 91443.65 | 2668318.14 |

4. Taula: Bilketa kosteak proposaturiko sisteman.

Ikusten den bezala:

1. Beraien sisteman aldaketarik jasoko ez luketenak **Antzuola, Gatzaga eta Oñatik** dira. Herri hauek **ez lukete jasoko aldaketarik bilketa gastuetan.**
2. **Aretxabaletako** kasuan, bilketa kostea **99.319,16 €-tan gutxituko** litzateke urtean.
3. **Arrasateko** kasuan, nahiz eta sisteman aldaketarik ez egin, Arrasateko Mahaiak baimentzen dituen aldaketa txiki batzuk aplikatuta (errefusako bilketa egun bat gutxitu) eta zerbitzu batzuk konpartitu ondoren (satelite lanak eta bilketa puntuen garbiketak), bilketa kostea **21.432,1 €-tan gutxituko** litzateke urtean.
4. **Bergarako** kasuan, bilketa kostea **177.884,47 €-tan gutxituko** litzateke urtean.
5. **Elgetako** kasuan, bilketa kostea **1.110,18 €-tan gutxituko** litzateke urtean.
6. **Eskoriatzako** kasuan, bilketa kostea **82.956,03 €-tan gutxituko** litzateke urtean.
7. **Guztira**, CESPari dagokion kontratuan, kontuan hartuta bilketa eta lan gehigarriengatik, **kontratua 382.703,19 €-tan gutxituko litzateke urtean.**

Honela, soilik kontratak bete beharko lituzkeen lanei begira, gaur egungo kostearen murrizketa honakoa litzateke:



| Herria | Kostearekiko Murrizketa (%tan) |
|----------------------|--------------------------------|
| Antzuola | 0.00% |
| Aretxabaleta | 26.66% |
| Arrasate | 2.64% |
| Bergara | 23.91% |
| Elgeta | 2.13% |
| Eskoriatza | 33.80% |
| Gatzaga | 0.00% |
| Oñati | 0.00% |
| Total general | 12.55% |

5. Taula: Gaurko sistema eta proposaturiko sisteman artean koste murrizketa.

3 – Baliabide materialak eta pertsonalak

Egungo bilketa zerbitzuetan erabiltzen diren baliabide materialak eta pertsonalak hauek dira:

| Suma de Langileak Proporz. | Herria | | | | | | | | | Total general |
|----------------------------|-------------|--------------|--------------|--------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|---------------|
| | Antzuola | Aretxabaleta | Arrasate | Bergara | Elgeta | Eskoriatza | Gatzaga | Oñati | | |
| Ampliroli | 0.00 | 0.01 | 0.03 | 0.02 | 0.00 | 0.01 | 0.00 | 0.02 | 0.02 | 0.10 |
| Furgoneta | 0.06 | 0.14 | 0.37 | 0.44 | 0.15 | 0.12 | 0.06 | 0.34 | 0.34 | 1.66 |
| Lateral (23 m3) | | | 2.13 | 0.41 | 0.08 | | | | | 2.62 |
| Lateral (24 m3) | | | 0.91 | 0.49 | 0.09 | | | | | 1.49 |
| Lavacontenedores | 0.02 | 0.05 | 0.24 | 0.20 | 0.01 | 0.11 | 0.02 | 0.17 | 0.17 | 0.82 |
| Porter | | | 2.33 | | | | | | | 2.33 |
| Satelite | | | 0.46 | 0.66 | 0.13 | | | | | 1.25 |
| Trasera (12 m3) | 1.03 | | 0.93 | 0.20 | 0.03 | 0.27 | 0.13 | 0.53 | 0.53 | 3.12 |
| Trasera (17 m3) | | 3.29 | 0.69 | 3.43 | 0.20 | 1.73 | | 3.86 | 3.86 | 13.20 |
| Trasera (22 m3) | | | 1.81 | | | | | 2.71 | 2.71 | 4.52 |
| Trasera (8 m3) | 0.16 | 2.82 | 2.09 | 6.09 | 0.23 | 1.08 | | 3.01 | 3.01 | 15.48 |
| Trastiak+Mantenua | 0.12 | 0.48 | 1.53 | 1.15 | 0.10 | 0.27 | 0.01 | 0.74 | 0.74 | 4.40 |
| Arinak hainbat | 0.08 | 0.32 | 1.01 | 0.76 | 0.06 | 0.18 | 0.01 | 0.49 | 0.49 | 2.92 |
| Total general | 1.49 | 7.11 | 14.53 | 13.84 | 1.09 | 3.77 | 0.22 | 11.87 | 11.87 | 53.90 |

6. Taula: Gaur egungo kontratuan lanean ari diren pertsona kopurua.

Taula honetan adierazten den kopuruak honakoa adierazten du: Mankomunitateak CESPAREkin kontratatatu dituen zerbitzuak betetzeko behar duen jardunaldi osoko pertsona kopurua (36 ordu astean), zerbitzu bakoitza betetzeko kalkulaturako iraupenaren arabera. Datu hauek kontratuaren modifikazioetatik atera dira.

Kontuan izan behar da, hauen artean 2 langile aldi baterako zerbitzua betetzen ari direla; hau da, Arrasateko kalitate kontrola betetzen ari direnak.

Taula honetan kontuan hartzen dira CESPARE kontrata honetarako jarritako langile guztiak (esku lan zuzena eta zuzena), eta bilketa lanetan ari den Mankomunitateko pertsonala (esku lan zuzena).

Zerbitzuan martxan dauden ibilgailuei buruzko informazioa beheko taulan azaltzen da:

| Matrikula | Jabetza | Zerbitzua | Ibilg. Mota | Tamaina (m ³) | Zerbitzuak |
|-----------|----------------|-----------|------------------|---------------------------|--|
| 1992HTL | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 8 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 1982HTL | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 8 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 1983HTL | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 8 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 0939HZH | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 8 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 0940HZH | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 8 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 1553HTM | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 22 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 1547HTM | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 17 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 1030BMG | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 17 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 2817HXX | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 17 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 2885HXX | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 17 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 8362FRS | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 12 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 0256JGT | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | | 12 Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 9325BSK | Mankomunitatea | CESPA | Laterala | | 23 Alboko kargako bilketak Herritarrak |
| 9326BSK | Mankomunitatea | CESPA | Laterala | | 23 Alboko kargako bilketak Herritarrak |
| 8075HXD | CESPA | CESPA | Laterala | | 24 Alboko kargako bilketak Herritarrak |
| 9324BSK | Mankomunitatea | CESPA | Kaxa Irekia | | 24 Traste Zaharrak Herritarra |
| 1806BVC | Mankomunitatea | CESPA | Lavacontenedores | | Alboko eta Atzeko Kargako (1.000 l.) edukiontzien garbiketa |
| 9599BSH | Mankomunitatea | CESPA | Furgoneta | | Atzeko kargako edukiontzien garbiketa (2 gurpildunak) |
| 2267GGY | Mankomunitatea | CESPA | Satelite | | Alboko kargako bilketa ibilgailuei asistentzia |
| 2687BDS | CESPA | CESPA | Amplioroll | | Arropen traslaoa kudeaketa zentrora |
| 9599BSH | Mankomunitatea | CESPA | Furgoneta | | Arropa bilketa |
| 1174BSG | Mankomunitatea | CESPA | Porter | | Kalitate Kontrola |
| | | CESPA | Furgoneta | | Enkargatuari zerbitzua |
| 1558HTM | Mankomunitatea | Mankom. | Trasera | | 22 Industrialia |
| 1561HTM | Mankomunitatea | Mankom. | Trasera | | 17 Industrialia |
| SS1804BK | Mankomunitatea | Mankom. | Trasera | | 18 Industrialia |

7. Taula: Gaur eguneko zerbitzuak emateko erabiltzen diren ibilgailuak.

Kontuan izan kamioiak ez dutela beti zerbitzu bera egiten herri konkretu bakoitzean, baizik eta txandakatuz doaz.

Zerbitzu hauek presatzeko erabiltzen den ibilgailu kopurua honakoa da:

1. Bilketa lateral guztiak egiteko 3 ibilgailu erabiltzen dira (2+1): 2 Mankomunitateak jarrita eta bestea CESPAk jartzen duena (alokairuan).
2. Bilketa trasera guztiak egiteko 12 ibilgailu erabiltzen dira (11+1), non 11 Mankomunitateak kontratari utzitakoak dira eta bestea CESPAk jarritakoa alokairuan.
Epe motzean Mankomunitateak entregatuko dio CESPAri falta zaion ibilgailua traserako zerbitzu guztiak betetzeko.
3. Edukiontzien garbiketarako egiteko, Mankomunitateak 2 ibilgailu utzi dio kontratari. Furgoia beste zerbitzu batzuk emateko ere erabiltzen da.
4. Gainontzeko lanak egiteko honako ibilgailuak erabiltzen dira:
 - i. Kamioia traste zaharrak biltzeko (CESPAri utzita).
 - ii. Kamioi bat alokairuan, astean behin ehunkiak Errenteriarara eramateko.
 - iii. Lau ibilgailu txiki lan gehigarriak egiteko (inspekzioa, edukiontzi txikien garbiketa, satelite lanak, enkargatu lanak, mantenu lanak...). Enkargatuen lanak egiteko ibilgailua CESPAk jarri behar du inongo konpentsaziorik gabe.



Ibilgailuez gain, oraingo sisteman honako baliabide materialak erabiltzen dira:

- ✓ ESEKITOKIAK. Hauek hirilurrean bizi diren herritarrek erabiltzen dute egun bakoitzean tokatzen den hondakin frakzioa ateratzeko. Proposatzen den sistemarekin esekitokiak konpatibleak ez direnez, Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzakoak erretiratu beharko lirateke. Hau da Mankomunitateko herrietan daukagun esekitoki kopurua:

| Herria | Posizioak 2 | Posizioak 4 | Posizioak 8 | Posizioak 12 | Posizioak 16 | Posizioak 20 | GUZTIRA |
|----------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|--------------|-------------|
| Antzuda | 3 | 11 | 19 | 23 | 32 | | 85 |
| Aretxabaleta | | | 5 | 25 | 12 | 128 | 170 |
| Bergara | | | 2 | 11 | 156 | 222 | 391 |
| Eskoriatza | | | | 10 | 36 | 22 | 68 |
| Oñati | | 24 | 5 | 33 | 107 | 134 | 303 |
| GUZTIRA | 3 | 35 | 31 | 102 | 343 | 506 | 1017 |

8. Taula: Debagoieneko herrietan kokatuta dauden esekitokiak.

- ✓ ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIAK. Edukiontzi hauek, Arrasateko 5. edukiontziaren ezarpenerako erosi ziren, Plastic Omnium enpresarekin hornitze kontratu bat sinatuz. Hornitze kontratu horretan, Arrasaterako 4 frakziotarako beharrak asetzeak bermatzen zen, eta Bergara eta Elgetako kasuetan, ontzi arinak eta papera-kartoiak jasotzeko edukiontzien horniketa ere bermatzen zen. Kontratuaren aurreikusitako gehieneko balioa, 661.460 €-koa zen. Bestalde, kontratu horretan ere aurreikusten zen edukiontzi gehiago erostea, Mankomunitateko gainontzeko herriak gerora izan zezaketen beharrak asetzeko, ontzi arinak eta papera-kartoiaren edukiontziei dagokienez. Plastic Omnium enpresak, lizitazio prezioak asko jaitsi zituen (%15-16 ingurukoa), eta honek ematen dio orain Mankomunitateari Bergara, Elgeta eta Eskoriatzarentzat beste edukiontzi erostea hiru herri hauen beharrak asetzeko. Kontratu honen iraupena bi urtekoa da, eta momentuan ere indarrean dago (2014/11/11n sinatuta).

| HERRIA | ORG. Eduk. | ERR. Eduk. | OARINAK Ed | PAP. Eduk. | GUZTIRA |
|----------|------------|------------|------------|------------|---------|
| Arrasate | 102 | 102 | 89 | 90 | 383 |
| Bergara | | | 56 | 56 | 112 |
| Elgeta | | | 10 | 11 | 21 |

9. Taula: Gaurko edukiontzi lateralaren kopurua, mota eta kokapena.

Arrasateko kasuan ez datoz bat edukiontzi kopuruen kantitateak, lur azpian daudenak, lehengo edukiontzi zaharrak direlako. Elgetako kasuan, ontzi arinenak baino paper edukiontzi bat gehiago dago.

- ✓ ATZEKO KARGAKO EDUKIONTZIAK. Edukiontzi hauek, landalurrean bizi diren herritarrei zerbitzua emateko erabiltzen dira; bai miniguneetan edo ekarpen guneetan. Elgetako herriaren kasuan, gai organikoa eta errefusa ere atzeko kargako edukiontzietan jasotzen da. Edukiontzi hauek konpatibleak izango lirateke proposaturiko sistemarekin. Hauek dira herri bakoitzean dauden atzeko kargako edukiontziak:



| Herria | Instalazioa | Litrajea | | | | | |
|----------------|-------------|----------|----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| | | 60 | 80-90 | 120 | 240 | 360 | 1.000 |
| Antzuola | EG | | | 1 | | | 3 |
| | LG | | | | 1 | | 3 |
| Aretxabaleta | EG | 3 | | | 3 | | 9 |
| | LG | 1 | | | | | 4 |
| | MG | | | | 1 | | 3 |
| Bergara | EG | 4 | 2 | 1 | 1 | | 10 |
| | LG | | 1 | 1 | | | 2 |
| | MG | | 2 | 8 | 3 | | 28 |
| Elgeta | Org+Err | | | 5 | 8 | | 5 |
| Eskoriatza | LG | | | 1 | | | 3 |
| | MG | | | 7 | 1 | 2 | 28 |
| Gatzaga | EG | 1 | | | | | 4 |
| | MG | | | 1 | 5 | | 1 |
| Oñati | EG | | | | | | 17 |
| | LG | | | 1 | | | 8 |
| | MG | | | 13 | 5 | 12 | 26 |
| GUZTIRA | EG | 8 | 2 | 2 | 4 | | 43 |
| | LG | 1 | 1 | 3 | 1 | | 20 |
| | MG | | 2 | 29 | 15 | 14 | 86 |

10. Taula: Gaur egungo atzeko kargako edukiontzi kopurua, mota eta kokapena.

- ✓ **ERAIKUNTZAK.** Honako eraikuntza mota daude hondakinen kudeaketan:
 - **EKARPEN GUNEA (EG).**
Landalurreko baserritarren etxeko hondakinak jasotzen dira bertan.
Itxitako eraikina da, sarrera kontrol elektronikoa duena (txartelen bidez).
Bertan litraje ezberdineko edukiontziak daude.
Proposaturiko sistema berriarekin konpatiblea da.
 - **LARRIALDI GUNEA (LG).**
Atez ateko bilketa duten herrietan daude. Bere funtzioa da: herritarrak duten larrialdientzat (hondakin sorrera handiko bazkari berezia, oportetara joan beharra...) leku bat izatea hondakinak utzi ahal izateko.
Itxitako eraikina da, sarrera kontrol elektronikoa duena (konexio remoto baten bitartez).
Ez litzateke izango konpatiblea proposaturiko sistemarekin.
Beste erabilera bat eman beharko zaio (frakzio batzutarako garbigunea, kale garbiketarako hondakin kokalekua...).
 - **MINIGUNEA (MG).**
Landalurreko baserritarren etxeko hondakinak jasotzen dira bertan.
Porlanezko plaka batez eratuta dago eta hainbat lekutan hesia dute jarrita itxitura erara.
Edukiontziatarra sarrera kontrolatua dago giltza edo sarrera kontrol elektronikoa bitartez (txartelen bidez).

Bestalde proposaturiko aldaketekin, honako baliabideak erabiliko lirateke:

| Suma de Langileak_Proportz. | Herria | | | | | | | | |
|-----------------------------|-------------|--------------|--------------|--------------|-------------|-------------|-------------|--------------|---------------|
| Ibilgailua | Antzuola | Aretxabaleta | Arrasate | Bergara | Elgeta | Eskoriatza | Gatzaga | Oñati | Total general |
| Ampliroli | 0.00 | 0.01 | 0.03 | 0.02 | 0.00 | 0.01 | 0.00 | 0.02 | 0.10 |
| Furgoneta | 0.06 | 0.15 | 0.35 | 0.45 | 0.05 | 0.13 | 0.06 | 0.34 | 1.58 |
| Lateral (23 m3) | | 1.16 | 1.90 | 1.47 | 0.24 | 0.82 | | | 5.59 |
| Lateral (24 m3) | | | 0.87 | 0.53 | 0.08 | | | | 1.49 |
| Lavacontenedores | 0.02 | 0.16 | 0.23 | 0.21 | 0.03 | 0.17 | 0.02 | 0.17 | 1.01 |
| Porter | | 0.35 | 2.33 | 1.01 | 0.16 | 0.23 | | | 4.08 |
| Satelite | | 0.00 | 0.51 | 0.73 | 0.00 | 0.00 | | | 1.25 |
| Trasera (12 m3) | 1.03 | | 0.93 | 0.20 | 0.03 | 0.27 | 0.13 | 0.53 | 3.12 |
| Trasera (17 m3) | | 0.96 | 0.69 | 1.35 | 0.20 | 0.31 | | | 3.86 |
| Trasera (22 m3) | | | 1.81 | | | | | 2.71 | 4.52 |
| Trasera (8 m3) | 0.16 | 2.22 | 2.09 | 3.09 | 0.00 | 0.50 | | 3.01 | 11.06 |
| Trastiak+Mantenua | 0.12 | 0.48 | 1.53 | 1.15 | 0.10 | 0.27 | 0.01 | 0.74 | 4.40 |
| Arinak hainbat | 0.08 | 0.32 | 1.01 | 0.76 | 0.06 | 0.18 | 0.01 | 0.49 | 2.92 |
| Total general | 1.49 | 5.80 | 14.29 | 10.97 | 0.96 | 2.90 | 0.22 | 11.87 | 48.49 |

11. Taula: Proposaturiko sisteman lanean ariko diren pertsona kopurua.

Langileei dagokionez, proposaturiko aldaketak langileengan honako murrizketa suposatuko luke:

1. **Jardunaldi osoko (36 ordu astean) 53,90 langiletik, 48,49 langilera pasatzea.**

Gaur eguneko zerbitzuen azterketarekin bezala, taula honek kontuan hartzen du CESPak kontrata honetarako jarrita dituen langile guztiak (esku lan zuzena eta ez zuzena), eta Mankomunitateak bilketa lanetan soilik dituen langileak (esku lan zuzena).

2. Hala ere kontuan izan behar da gaurko zerbitzuetan **2 langile daudela aldi baterako lanak egiten** (Arrasateko kalitate kontrola), eta proposaturiko sisteman lau izango zirela lan hauek egiten egongo liratekeenak: Arrasateko biak, beste bat Aretxabaleta eta Eskoriatzarako, eta azken bat Bergara eta Elgetarako.

Aldi baterako zerbitzuak desagertzean, proposaturiko sisteman **44,49 langile egingo lukete lana (gaur egungo sisteman baino 7,41 langile gutxiago).**

Ibilgailuei dagokionez:



| Matrikula | Jabetza | Zerbitzua | Ibilg. Mota | Tamaina (m ³) | Zerbitzuak |
|---|----------------|-----------|------------------|---------------------------|---|
| 1992HTL | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 8 | Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 1982HTL | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 8 | Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 1983HTL | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 8 | Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 0939HZH | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 8 | LIBRE |
| 0940HZH | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 8 | Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 1553HTM | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 22 | Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 1547HTM | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 17 | Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 0262JGT | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 12 | LIBRE |
| 2817HXX | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 17 | Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 2885HXX | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 17 | Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 8362FRS | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 12 | Atzeko kargako bilketak Herritarrak, Komertziala eta Landalurra |
| 0256JGT | Mankomunitatea | CESPA | Trasera | 12 | LIBRE |
| 9325BSK | Mankomunitatea | CESPA | Laterala | 23 | Alboko kargako bilketak Herritarrak |
| 9326BSK | Mankomunitatea | CESPA | Laterala | 23 | Alboko kargako bilketak Herritarrak |
| 8075HXD | CESPA | CESPA | Laterala | 24 | Alboko kargako bilketak Herritarrak |
| 9324BSK | Mankomunitatea | CESPA | Kaxa | 24 | Traste Zaharrak Herritarrak |
| 1806BVC | Mankomunitatea | CESPA | Lavacontenedores | | Alboko eta Atzeko Kargako (1.000 l.) edukiontzien garbiketa |
| 9599BSH | Mankomunitatea | CESPA | Furgoneta | | Atzeko kargako edukiontzien garbiketa (2 gurpildunak) |
| 2267GGY | Mankomunitatea | CESPA | Satelite | | Alboko kargako bilketa ibilgailuei asistentzia |
| 2687BDS | CESPA | CESPA | Ampliroll | | Arropen trasladioa kudeaketa zentrorra |
| 9599BSH | Mankomunitatea | CESPA | Furgoneta | | Arropa bilketa |
| 1174BSG | Mankomunitatea | CESPA | Porter | | Kalitate Kontrola |
| | | CESPA | Furgoneta | | Enkargatuari zerbitzua |
| 1558HTM | Mankomunitatea | Mankom. | Trasera | 22 | Industrial |
| 1561HTM | Mankomunitatea | Mankom. | Trasera | 17 | Industrial |
| SS1804BK | Mankomunitatea | Mankom. | Trasera | 18 | Industrial |
| IBILGAILU BERRIAK + PROPOSAMENAK | | | | | |
| | Mankomunitatea | CESPA | Laterala | 23 | Alboko kargako bilketak Herritarrak |
| | Mankomunitatea | CESPA | Lavacontenedores | EZ | Alboko eta Atzeko Kargako (1.000 l.) edukiontzien garbiketa |
| | CESPA | CESPA | Porter | EZ | Kalitate Kontrola |
| | CESPA | CESPA | Porter | EZ | Kalitate Kontrola |

12. Taula: Proposatutako zerbitzuak emateko erabiltzen diren ibilgailuak.

OHARRA: Libre geldituko diren hiru ibilgailuak azkeneko puntuan zehaztutakoak dira, eta ez taula honetan agertzen direnak, bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

- Bilketa lateraleko** zerbitzu guztiak egiteko **4 ibilgailu beharko dira**: 2 Mankomunitateak jarrita (2015eko aurrekontutik ordainduta), beste bat 2016ko aurrekontutik ordainduta, eta momentu honetan CESPAk dituen 2 zaharrekin zerbitzu bat emango luke. Aldi batean (ibilgailu berriak erosi arte) CESPAk jarri beharko ditu ibilgailu hauek alokairuan, betiere, Aretxabaleta eta Eskoriatzako bilketak egunez egingo balira. Aretxabaleta eta Eskoriatzako bilketak ere gauzez egingo balira, beste ibilgailu bat gehiago beharko litzateke.
- Bilketa trasera guztiak egiteko 9 ibilgailu beharko dira** eta momentu honetan Mankomunitateak CESPAri utzita dituenekin beteko luke behar hau.
Soberan geldituko litzatekeen 3 ibilgailuak salgai jarri beharko lirateke.
- Kontuan izanik edukiontzi lateralaren parkearen gehikuntza, **beharrezkoa litzateke edukiontzien garbiketak egiteko bigarren ibilgailu bat erostea** 2016ko aurrekontutik ordainduta. Beraz, beharrezkoa litzateke 2 kamioi garbigailu (behar den azkena erosi arte bat alokairuan beharko litzateke) eta agian furgoia edukiontzi txikiak garbitzeko.



4. Gainontzeko lanak egiteko honako ibilgailuak erabiliko lirateke:
 - i. Kamioi bat traste zaharrak biltzeko (Mankomunitateak utzita CESPAri).
 - ii. Kamioi bat astean behin ehunkiak Errenteriarra eramateko. Beharrezkoa balitz, Mankomunitateak entregatuko dio CESPAri Garbiguneko kamoi zaharra bidai hau egiteko.
 - iii. Bost ibilgailu txiki lan gehigarriak egiteko (inspekzioa, edukiontzi txikien garbiketa, satelite lanak, enkargatu lanak, mantenu lanak...). Hauetako bi ibilgailu alokairuan jarriko lituzke CESPAk. Enkargatuen lanak egiteko ibilgailua CESPAk jarri behar du inongo konpentsaziorik gabe.

CESPAk ematen dituen zerbitzuaz aparte, Mankomunitateak honako bilketa zerbitzuak ditu beste enpresa batzuekin:

1. Beiraren bilketa. Ecovidriok egiten du eta Mankomunitateak ez du honegatik ezer ordaintzen. Bilketa honen funtzionamendua Erkide Autonomo mailan hitzartutako akordioan erregulatu da.
2. Etxeko olioaren bilketa. Kasu honetan, Mankomunitateak ECOGRAS enpresarekin du kontratua Mankomunitate mailan sortutako etxeko olio bildu eta tratatzeko. Kontratu hau edukiontzien bitartez ematen da eta urtean 26.880 €-ko gastua suposatzen du.

4 – Sistema berria ezartzeko behar diren epeak


Hurrengo kronograman azaltzen da prozesu guztiak behar duen denbora (gutxi gora beherakoa), aurrez identifikatutako pausoak jarraituz.

Kontuan hartzekoa da, kronograma honetan azaltzen diren hainbat ekintzen martxa ez daudela soilik Mankomunitatearen esku.

Honetaz aparte, proiektu hau garatzen joan ahala, zehaztu beharko direla ekintza hauek aurrera eramateko sortuko diren lan kargak eta erabili beharreko giza baliabideak.

2015

2016





5 – Aurrekontuak

Puntu honetan azalduko da sistema berriaren ezarpenak eskatzen duen inbertsioa eta sistema honen ustiaketak suposatzen duen kostea.

Besteak beste hartuko dira kontuan bilketa kosteak eta inbertsio beharrak.

5.A BILKETA ETA ZERBITZU GEHIGARRIEN KOSTEAK

Azpian agertzen den tauletan, **gaur egungo** hondakin bilketa zerbitzuak duen kostea adierazten da, herriz herri, eta zerbitzu motaka.

Lehenengo taulan azaltzen dira CESPak betetzen dituen bilketa eta lan gehigarrien zerbitzu guztien kostua.

Era berean Mankomunitateak betetzen dituen zerbitzuak ere agertzen dira, identifikatuz zein den zerbitzu hauen kostea.

Bigarren taulan, bereizten da herriz herri nori zuzentzen zaion zerbitzua.

Taula hauetan azaltzen diren kosteetan ez dago BEZa sartuta.

| Suma de Kostea | Nork | | | |
|----------------------|-------------------|-------------------|------------------------|-------------------|
| Herria | CESPA | MANK. INDUSTRIALA | MANK. (Cesparen lanak) | Total general |
| Antzuola | 106627.01 | | | 106627.01 |
| Aretxabaleta | 372568.01 | 54552.30 | | 427120.31 |
| Arrasate | 720423.75 | 128318.58 | 91443.65 | 940185.98 |
| Bergara | 743980.21 | 89305.57 | | 833285.78 |
| Elgeta | 52203.75 | 13418.97 | | 65622.73 |
| Eskoriatza | 245432.03 | 16658.03 | | 262090.06 |
| Gatzaga | 14538.24 | | | 14538.24 |
| Oñati | 703804.68 | 64830.28 | | 768634.95 |
| Total general | 2959577.68 | 367083.74 | 91443.65 | 3418105.07 |

13. Taula: Debagoiengan sortutako etxeko hondakinen bilketa kosteak gaur herrikoa.

Taula honetan, kontrataren esku lan zuzena eta ez zuzenak sorturiko kostu guztiak hartu dira kontuan.

| Suma de Kostea-Motaka | Mota | | | | |
|-----------------------|-------------------|------------------|------------------|------------------|-------------------|
| Herria | Herritarra | Industrial | Komertziala | Landalurra | Total general |
| Antzuola | 66224.87 | 15330.71 | 22354.44 | 2716.99 | 106627.01 |
| Aretxabaleta | 244170.69 | 59347.96 | 93777.15 | 28772.52 | 426068.32 |
| Arrasate | 494847.00 | 139632.14 | 303216.01 | | 937695.15 |
| Bergara | 474940.80 | 95252.12 | 211202.66 | 51890.21 | 833285.78 |
| Elgeta | 43987.42 | 15541.09 | 6094.22 | | 65622.73 |
| Eskoriatza | 176806.25 | 20994.44 | 38627.68 | 29204.51 | 265632.88 |
| Gatzaga | 3937.53 | | 7283.69 | 3317.03 | 14538.24 |
| Oñati | 440503.09 | 73652.72 | 204064.97 | 50414.17 | 768634.95 |
| Total general | 1945417.64 | 419751.19 | 886620.81 | 166315.42 | 3418105.07 |

14. Taula: Bilketa kosteak gaur herrikoa eta erabiltzaile motaren arabera.



Azken taula hau ondo ulertu ahal izateko honakoak hartu behar dira kontuan:

1. Mankomunitate mailan ematen diren hainbat zerbitzu amankomunak dira erabiltzaile mota ezberdinentzako. Adibidez Bergaran, ontzi eta paper edukiontzi lateralak, herritar, komertzio eta kasu gutxi batzuetan landalurreko herritarrak erabiltzen dituzte. Beraz, bilketa industralean izan ezik, gainontzeko zerbitzuetan ez dago trazabilitate zuzena zerbitzu eta erabiltzaile mota ezberdinen artean.
2. Herri guztiak ez dute zerbitzurik, landalurrean sortutako hondakinak jasotzeko. Honela, Arrasaten kasuan, hirigunetik kanpo dauden auzoak (Udala, Garagartza, Gesalibar eta Bedoña) hirigune bezala daude katalogaturik, eta herri gunean ematen den zerbitzu bera ematen da. Barreiatuak bizi diren erabiltzaileak hurbilen duten puntuetara eraman behar dituzte beraien hondakinak. Elgetaren kasuan, aporazio puntu bakar bat dago hirigunetik kanpo, Aseztion dagoena. Puntu hau bertako erabiltzaileei baino, kanpotik egun pasa bertara etorritako erabiltzaileei dago zuzendua.
3. Landalur eremu zabala duten herrientzat (Bergara eta Oñati), arazo handia suertatzen da erabiltzaile mota bakoitzaren hondakinak modu indibidualean jasotzea, horregatik ibilbide hauetan oso nahastuta daude landalurrean bizi diren herritarren hondakinak, hondakin komertzialarekin.
4. Zerbitzu orokorrak ere banatu egin dira mota ezberdinetako erabiltzaile kopuruaren arabera.

Bestalde **proposaturiko sistemaren arabera**, bilketa eta lan gehigarriekin batera doazen zerbitzuak emateagatik, kosteak honela banatzen dira herri ezberdinetan:

| Suma de Kosteak | Nork | | | |
|-----------------|------------|------------------------|-------------------|---------------|
| Herria | CESPA | MANK. (Cesparen lanak) | MANK. INDUSTRIALA | Total general |
| Antzuola | 106625.77 | | | 106625.77 |
| Aretxabaleta | 273248.85 | | 54552.30 | 327801.15 |
| Arrasate | 698991.65 | 91443.65 | 128318.58 | 918753.88 |
| Bergara | 566095.74 | | 89305.57 | 655401.31 |
| Elgeta | 51093.57 | | 13418.97 | 64512.54 |
| Eskoriatza | 162476.00 | | 16658.03 | 179134.03 |
| Gatzaga | 14538.24 | | | 14538.24 |
| Oñati | 703804.68 | | 64830.28 | 768634.95 |
| Total general | 2576874.49 | 91443.65 | 367083.74 | 3035401.88 |

15. Taula: Debagoienez sortutako etxeko hondakinen bilketa kosteak proposaturiko sistemaren arabera eta herriak.

Taula honetan, kontrataren esku lan zuzena eta ez zuzenak sorturiko kostu guztiak hartu dira kontuan.



Azkenik, alderatzen baditugu gaur egungo zerbitzuen kosteak, proposaturiko sistemak sortuko lituzkeenekin (soilik CESPAri dagokion zerbitzuetan):

| HERRIA | Kostea GAUR | Kostea BIHAR | Diferentziak | %tan |
|----------------|-------------------|-------------------|-------------------|---------------|
| Antzuola | 106627.01 | 106625.77 | -1.24 | 0.00% |
| Aretxabaleta | 372568.01 | 273248.85 | -99319.16 | 26.66% |
| Arrasate | 811867.40 | 790435.30 | -21432.10 | 2.64% |
| Bergara | 743980.21 | 566095.74 | -177884.47 | 23.91% |
| Elgeta | 52203.75 | 51093.57 | -1110.18 | 2.13% |
| Eskoriatza | 245432.03 | 162476.00 | -82956.03 | 33.80% |
| Gatzaga | 14538.24 | 14538.24 | 0.00 | 0.00% |
| Oñati | 703804.68 | 703804.68 | 0.00 | 0.00% |
| GUZTIRA | 3051021.33 | 2668318.14 | -382703.19 | 12.54% |

Kontuan hartuta dago:

- Esku lan zuzena eta ez zuzena CESPArena eta MANKOMUNITATEArena (CESPAk egin beharreko lanetan).

- Kontratuko zerbitzu orokorrak.

Ez da hartu kontuan:

- Mankomunitateko industrialeko zerbitzuak eta esku lan ez zuzena

16. Taula: Gaurko eta proposaturiko sistemen artean koste diferentziak.

5.B INBERTSIO BEHARRAK ETA SALMENTATIK LORTUTAKO INGRESOAK

Proposaturiko sistemak eskatzen duen inbertsio beharrak, azpiko taulan adierazten dira. Azaltzen diren diru kopuru guztiak ez dute BEZa kontuan hartzen.

EDUKIONTZIAK erosi eta muntatzeagatik sortutako gastua:

| Herria | Kontratoa | Aleak 2.200 l | €/ale 2.200 l | Aleak Sarr. Kontrola | €/ale S.K. | Aleak 3.200 l | €/ale 3.200 l | GUZTIRA (€) | Guztira PO | Guztira berria |
|----------------|---------------------|---------------|---------------|----------------------|------------|---------------|---------------|-----------------|-----------------|----------------|
| Aretxabaleta | Berria | 58 | 800 | 58 | 180 | 58 | 900 | 109040 | | 109040 |
| Bergara | Plastic Omnium (PO) | 126 | 665.5 | 126 | 160 | 16 | 763.5 | 116229 | 116229 | |
| Elgeta | Plastic Omnium (PO) | 22 | | 22 | | | | 18161 | 18161 | |
| Eskoriatza | Plastic Omnium (PO) | 38 | | 38 | | 38 | | 60382 | 60382 | |
| Reserbak | Plastic Omnium (PO) | 22 | | 22 | | 19 | | 32667.5 | 32667.5 | |
| GUZTIRA | | | | | | | | 336479.5 | 227439.5 | 109040 |

17. Taula: Edukiontzi lateral berrien erosketak.

ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIAK atalean (11. orrialdean) azaltzen den bezala, momentu honetan, Mankomunitateak Plastic Omnium enpresarekin duen kontratuaren arabera, posible litzateke kontratu honen pean, Bergara (142 edukiontzi 116.229€), Elgeta (22 edukiontzi 18.161€), Eskoriatza (76 edukiontzi 60.382€) eta erreserbarako behar diren beste edukiontzi hornitzea (41 edukiontzi 32.667,5€).

Gainontzekoak, hau da Aretxabaletarako beharko liratekeenak, kontratu berri baten bitartez egin beharko litzateke, goiko taulan agertzen diren gehienezko lizitazio prezioak kontuan hartuta (116 edukiontzi 109.040€).

Kontuan izanik GHK enpresak epe laburrean hondakinen transferentzi zerbitzuak Epelera trasladatuko dituela, Mankomunitateak proposatzen du edukiontziak AKElko plantan muntatzea, honela pabiloi baten alokairua aurreztuko litzateke operazio hauetan.



EDUKIONTZIAK kokapen puntuetara eramatearren sorturiko gastua:

| Herria | Aleak | Traslado kosteak edukiontziko | €/Guztira |
|----------------|------------|-------------------------------|----------------|
| Aretxabaleta | 116 | 54.20 | 6287.2 |
| Bergara | 142 | | 7696.4 |
| Elgeta | 22 | | 1192.4 |
| Eskoriatza | 76 | | 4119.2 |
| Erreserbak | 41 | | 2222.2 |
| GUZTIRA | 397 | | 21517.4 |

18. Taula: Edukiontzi berrien traslado kosteak.

IBILGAILU berrien erosketak:

| Ibilgailu mota | Aleak | €/ale (aproximazioa) | Guztira |
|------------------------------------|-------|----------------------|---------------|
| Hondakinak jasotzeko ibilgailua | 1 | 180000 | 180000 |
| Edukiontziak garbitzeko ibilgailua | 1 | 200000 | 200000 |
| GUZTIRA | | | 380000 |

19. Taula: Ibilgailu berriak erosteko (2016) behar den inbertsioa.

SOBERAN EGONGO DIREN IBILGAILUengatik jasotzea aurreikusten dena:

| Ibilgailu mota | Matrikula | m3-koak | Aleak | Kilometroak | Orduak | Antzinatasuna | Erosketa prezioa (BEZ barne) | Salmenta prezioa (BEZ barne) |
|--|-----------|---------|-------|-------------|--------|---------------|------------------------------|------------------------------|
| Atzeko kargako ibilgailua (3 ardatzetakoa) | 1558HTM | 22 | 1 | 89,971 | 5604 | 08/11/2013 | 149,435 | 112,838.67 |
| Atzeko kargako ibilgailua (2 ardatzetakoa) | 1982HTL | 8 | 1 | 105,505 | 6536 | 05/11/2013 | 107,932 | 81,499.67 |
| Atzeko kargako ibilgailua (2 ardatzetakoa) | 1983HTL | 8 | 1 | 94,642 | 6490 | 05/11/2013 | 107,932 | 81,499.67 |
| GUZTIRA | | | | | | | 365,299 | 275,838 |

20. Taula: Soberan geldituko diren ibilgailuen salmenta (atzeko kargakoak).

Salmenta prezioak, amortizazio epeen arabera kalkulatu dira (8 urteko amortizazioak). Hala ere ibilgailuak saltzeko momentua heltzen denean, zehatzago aztertu beharko litzateke ibilgailuen egoera, posible balitz prezio hobetoak lortzeko

Laburbilduz, hauek lirateke egin beharreko inbertsio gastuak (eurotan):

- 1- Edukiontzien erosketa eta kokapenagatik sortutako gastua..... 357.996,9
- 2- Zerbitzu berriak egiteko ibilgailuen erosketagatik sorturiko gastua 380.000
- 3- Soberan egongo diren ibilgailuak saltzearen lortutako diru sarrerak..... -275.838

GUZTIRA..... 462.158,9

Hala ere, ezarpen berriak (2016. urtean), Mankomunitateak erosiko dituen ibilgailuak izan arte, eta behin behineko zerbitzuen beharrei aurre egiteko (kalitate kontrola) honako IBILGAILUAK alokatzea suposatuko du:

Proposatutako sistemak eskatzen dituen baliabide materialak (2016. urtean). ALOKAIRUAK

| Alokatutako Ibilgailu mota | Hasi | Amaitu | Egunak | Prezioa/egun (€-tan) | Prezioa/urte (€-tan) | Oharrak |
|-------------------------------|------------|------------|--------|----------------------|----------------------|--|
| Lateral_1 | 04/04/2016 | 16/11/2016 | 226 | 99.475 | 22481.35 | Bergara eta Eskoriatza martxan jartzen direnetik, ibilgailu berriak hornitu arte. Lau hilabete inguru plegua publikatu eta gero, jasotzeko proposamenak, baloratu, esleitu eta kontratua sinatzeko. Sei hilabete ibilgailua entregatzeko (2016ko azaroan). |
| Lavacontenedores | 04/04/2016 | 16/11/2016 | 226 | | 22481.35 | Laterala_1 atalean azaldutako gauza bera |
| Kalitate kontrola Ber-Elg-Esk | 04/04/2016 | 31/10/2016 | 210 | 49.475 | 10389.75 | Ez da aurreikusten sei hilabete baino luzeagoa izan daitekeenik. Ibilgailu bera goizean herri batean (Eskoriatza) eta atsaldetan beste bietan (Bergara-Elgeta) erabiliko litzateke, turmoa txandakatuz |
| GUZTIRA | | | | | 55352.45 | |

21. Taula: Sistema berriaren ezarpen fasean ibilgailuen alokairu gastuak.